



## Idiazabalgo Udala

Espedientea:  
2020KHTZ0008

Idiazabalen, bi mila eta hogeiko azaroaren 27an

### ELKARTUTA

Alde batetik, **IÑAKI ALBERDI IPARRAGIRRE** jauna, Idiazabalgo alkate-burua

Bestetik, **JOSE LUIS MINTEGUI ARIZTIMUÑO** jauna., NAN 72.439.226 J zenbakiduna **eta MARIA DEL CARMEN DEL OLMO ZAMARRO** andrea, NAN 34.103.102 J zenbakiduna, Idiazabalgo udalerriko Kale Nagusia 4ko 3.B solairuan helbideratuta.

### ARI DIRA

**IÑAKI ALBERDI IPARRAGIRRE** jauna, Idiazabalgo Udalaren izenean, dokumentu hau sinatzeko berariaz baimenduta.

**JOSE LUIS MINTEGUI ARIZTIMUÑO** jauna **eta MARIA DEL CARMEN OLMO DEL ZAMARRO** andrea, adin txikiko **ANE MINTEGI DEL OLMO** andrearen izen eta legezko ordezkaritzan, Herri Administrazioetako Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3b) artikulua eta Kode zibilak aitortzen dieten gaitasunarekin.

Parte-hartzaileek agiri hau sinatzeko behar den lege gaitasuna aitortzen diote elkarri eta hala, hau

### ADIERAZTEN DUTE

1. Idiazabalgo Udalak eta LAU LAGUN BEARINGS S.L k 2020ko ekainaren 23an, interes orokorreko jardueretarako enpresen arteko lankidetzahitzarmena sinatu zuten, kirol-arloko beka, programak eta jarduerak finantzatzeko. Hitzarmen horren bitartez, LAU LAGUN BEARINGS S.L kolaboratzaileak Idiazabalgo Udalari HAMAIIKA MILA EUROko (11.000€) ekarpena eskudirutan egiteko konpromisoa hartu zuen.

2. 2020ko irailaren 24an ez-ohiko osoko bilkuran, Idiazabalgo Udalbatzak enpresen arteko lankidetzahitzarmen hori onartzea erabaki zuen, aho batez.

3. Idiazabalgo Udalaren ustez, kirol ekipamenduetan inbertitzeaz gain, kirola gizarte-arlo guztietan sustatzea eta gazteen artean aisialdia behar bezala erabiltzeko erraztasunak ematea berebizikoa da.

Diruzko ekarpenaren helburu nagusia Udalari laguntzea da, udal eskumen eta zerbitzuei lotutako jarduerak gauza ditzan, beti ere irabaz asmorik gabe eta kolektibitate osoaren onura argi eta zuzena lortzeko asmoz. Helburua hori izanik, Idiazabalgo Udalak kirol-arloko beka batean inbertituko du LAU LAGUN BEARINGS S.L kolaboratzaileak egindako diruzko ekarpena edo dohaintza. Beka horrek diru-laguntza publikoaren izaera juridikoa izango luke. Ekintza hauen bitartez, Idiazabalgo Udalak behar bezala bete du kirola sustatzeko eginbehar konstituzionala (43.1 artikulua) eta kontuan hartzen ditu sektore pribatuaren desio eta betebeharrak, zerga-tratamendu mesedegarria jasotzea merezi duen enpresen arteko lankidetzarako sistemaren barruan.



## Idiazabalgo Udala

Espedientea:  
2020KHTZ0008

4. 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. artikulua xedatutakoaren arabera, Udal eskumen propioa da: «19) Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea».

5..Idiazabalgo Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren baitan sartu da programa hau.

12/2020

12/2020

1.Organo emailea: Idiazabalgo Udala (Kultura Sailea).

2.Zenbateko: 12.000€

3.Finantza Iturria: Udala.

4.Kontu izendapena: 1.481.00.341.50 2020 (2117)

5.Kudeaketa mota: Hitzarmena.

6.Araudia: Idiazabalgo Udalaren eta Ane Mintegi Del Olmoren arteko hitzarmena, kirol lehiaketan eta topaketan ondoriozko gastuak finantzatzekoa.

7.Lortu nahi diren helburuak eta ondorioak:

a) Ane Mintegi Del Olmo den kirol promesak kirol lehiaketetan zein topaketetan parte hartzea sustatzea.

b) Emakumeen kirol esparruan parte hartzea sustatzea.

c) Kirola aisialdian aukeratzea sustatzea.

d) Idiazabal kirol sustatzaile zein kirol ekimen jarduerak egiteko toki bezala aitortzea.

8.Onuraduna: Ane Mintegi Del Olmo.

9.Epea: 2020.

1.Concedente: Ayuntamiento de Idiazabal (Dpto. Cultura).

2.Importe: 12.000€

3.Fuente de financiación: Municipal.

4.Cuenta presupuestaria: 1.481.00.341.50 2020 (2117)

5.Modalidad de gestión: Convenio.

6.Normativa: Convenio entre el Ayuntamiento de Idiazabal y Ane Mintegi Del Olmo, para el otorgamiento de una beca deportiva para financiar los gastos derivados de las competiciones y encuentros deportivos.

7.Los objetivos y efectos que se pretenden alcanzar:

a) Potenciar la participación en competiciones y encuentros deportivos de la deportista promesa Ane Mintegi Del Olmo.

b) El fomento de la participación de la mujer en el ámbito deportivo.

c) El fomento del deporte como alternativa de ocio.

d) El reconocimiento de Idiazabal como municipio impulsor y de destino de iniciativas y actividades deportivas.

8.Beneficiario/a: Ane Mintegi Del Olmo.

9.Plazo: 2020.

6.Kirol-arloko merituengatik, izandako ibilbideagatik, gaztea izateagatik eta goi-mailako kirolean duen proiektzioagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Saileko foru diputatuak, irailaren 6ko 02-128/2018 Foru Aginduaren bitartez, Ane Mintegi Del Olmo etorkizun oparoko kirolari izendatzea ebatzi du, tenisaren kirol eremuan.

(Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2018ko irailaren 13an argitaratu da, 177. Zenbakian)



## Idiazabalgo Udala

Espedientea:  
2020KHTZ0008

Hau guztia kontuan hartuta, bi aldeek ituntzen dute ondoko

### KLAUSULAK

**Lehenengoa.** Hitzarmen honen bitartez arautzen da zein baldintzatan emango dion beka Idiazabalgo Udalak ANE MINTEGI DEL OLMO andereari xede hauetarako:

**1) 2020-2021 ekitaldian honako hauetan parte har dezan:**

- Errendimenduan oinarritutako kirol lehiaketa ofizialak, profesionalentzako ez direnak eta estatu mailakoak, Europa mailakoak edo mundu mailakoak direnak.
- Nazioarteko kirol topaketak.
- Kalitate edo kantitate aldetik nazioarteko parte-hartze garrantzitsua duten eta gutxienez zati batean Gipuzkoan egiten diren kirol ekimenak.

Errendimenduan oinarritutako kirol lehiaketa ofizialetan eta nazioartekoetan parte hartuz gero, kirolariak gastu handiagoak hartu beharko ditu bere gain, bere errendimenduaren eta teknikaren kalitatea hobetzeko eta lehiaketetan parte hartzeko aukera berriak lortzen lagunduko dioten jarduera berriak egiteko (lehiaketetarako kirol ohitura berriak, osasun azterketak eta kontsultak, kirol materiala erostea, aholkularitza eta prestakuntza praktikoa, ikasketak eta kirol lehiaketak bateratzeko gastu akademiko gehigarriak...). Goi-mailako kirolari eta prestakuntza akademikoari lotutako aspektuetan, Eusko Jaurlaritzak berak ezarritako baldintzak bete beharko dira.

**2) Emakume kirolariaren ikusgarritasunaren eta gizarte-aitorpenaren alde egitea eta emakumeek kirolariaren parte hartzearen inguruan dagoen edozein genero-estereotipo bazterten laguntzea, Idiazabalen emakumeek gizonen pareko aukerak dituztela bermatzeaz gain.**

Kirola fenomeno soziala da eta garrantzia handiko ekonomia-egitura sortu da haren inguruan. Horren eta gizartean duen garrantzia areagotu izanaren ondorioz, emakumeek kirol munduan duten parte-hartzea areagotzeko (kirolari moduan, epaile moduan...), ordainsarien arteko aldea murrizteko eta kirol munduan sartzeko orduan dauden desberdintasunak murrizteko beharrez dago.

**3) Idiazabal kirola lehenesten eta sustatzen duen udalerrri modura aitor dadin sustatzea, emakumezkoen kirola eta integratzailea dena batez ere, eta kirol-arloko ekimenak eta jarduerak egiteko toki modura sustatzea.**

**Bigarrena.** HOGEI MILA EURO (20.000,00) euroko beka emango dio Idiazabalgo Udalak ANE MINTEGI DEL OLMO andereari aurrekontuaren aplikazio honen kontura: 1 481.00.341.50 2020

ANE MINTEGI DEL OLMO anderen legezko ordezkariak onartzen dute beka jasotzea.

Beka hau bateragarria da helburu bereko beste edozein subentzio, beka, laguntza, sarrera edo baliabiderekina. Diru laguntzaren guztizkoak inoiz ez du jarduera diruz lagunduaren kostua gaindituko, ez banaka ez beste subentzio laguntza, diru sarrera edo baliabideekin batera.

**Hirugarrena.** ANE MINTEGI DEL OLMO anderen legezko ordezkariak onartu dute Idiazabalgo Udalak egiaztatzea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela; halaber, adierazten dute betetzen dituztela azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorraren 11. artikuluan onuradun izateko ezarritako gainerako baldintzak.



## Idiazabalgo Udala

Espedientea:  
2020KHTZ0008

ANE MINTEGI DEL OLMO anderearen legezko ordezkariak ere onartzen badituzte Idiazabalgo Udalak egingo dituen finantza-kontrolak, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki erakundeetako Aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoak, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiko legerian ezartzen diren finantza kontrolak ere, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman eta gauzatzeari buruz eskatzen dioten informazio osagarri guztia emanez.

Idiazabalgo Udala jakinaren gainean jarriko dute bekadunen legezko ordezkariak beste herri administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berdineko beste diru laguntzaren bat ematen badio, edo diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatzen bada.

**Laugarrena.** Idiazabalgo Udalak HOGEI MILA EURO (20.000,00) euroko beka ordainduko du, honako zatikapenarekin:

- 2020ko abenduan BEDERATZI MILA EURO (9.000,00)
- Lau lagun enpresak bi transferentziak egindakoan (2020 urte amaieran eta 2021 urte hasieran), guztira HAMAIKA MILA EURO (11.000,00)

LABORAL KUTXA IBAN ES41 3035 0199 01 1990018402

Halaber, diru-laguntza izenduna eman dela argitaratuko du Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Diru-laguntzen Datu-Base Nazionalan.

**Bosgarrena.** Diru laguntzaren zuriketari dagokionez, bekadunaren legezko ordezkariak aurkeztu beharko dituzte ondokoak 2021ko ekainaren 30a baino lehen:

1) Kirol lehiaketetan eta topaketetan parte hartu duela erakusten duten dokumentuak

2) Memoria ekonomikoa, honako hauek bilduko dituena:

a) Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua: hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazita.

b) Fakturak edo trafiko juridiko merkantilean pareko froga balio duten edo eraginkortasun administratiboa duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatutakoak eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duen dokumentua.

c) Diruz lagundutako jarduketara finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda zehatua: zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Zeharkako kostetzat jotzen dira diru laguntzaren zenbatekoaren %8 eta hori ez da zuritu behar.

3) Beste memoria bat, bekadunaren ikuspegi pertsonaletik honako gaietako baten edo biren gainean egindako ikerketa-lanean oinarrituko litzatekeena:

1) Emakumezko kirolari gaztea izanda kirol-arloko baliabide publikoak erabiltzeko orduan bizitako egoeren eta berdintasunik ezaren analisia.



## Idiazabalgo Udala

Espedientea:  
2020KHTZ0008

2) Emakumeek kirol-arloan erabakiak hartzeko esparruetan dituzten aukeren, parte-hartzearen eta eraginaren analisia.

3) Gizartean eta kirol munduan balioak aldatzen laguntzen duten eta gizartean berdintasun handiagoa egoteko aldaketetan eragina duten ekimenak, proposamenak eta faktoreen analisia.

4) Idiazabal kirola lehenesten eta sustatzen duen udalerrri modura -batez ere, emakumezkoen kirola eta kirol integratzailea sustatzen dituen udalerrri modura- eta kirol-arloko ekimenak eta jarduerak egiteko toki modura aitortzeko ekintzen deskribapena.

**Seigarrena.** ANE MINTEGI DEL OLMO anderearen legezko ordezkariak honako betebeharrak hartzen dituzte:

- Jakitera emateko finantzaketa publiko-pribatuaren jatorria, bekari lotutako jarduerak egiten dituenen eta kirol lehiaketetan (arropa, oinetakoak, kirol materiala, beti ere kirol-arloko araudiarekin bateragarriak badira).

- Idiazabalgo Udalak eta LAU LAGUN BEARINGS S.L kolaboratzaileak «Ane Mintegi Del Olmo Beka» izeneko udal programaren finantzaketaren berri emateko.

- LAU LAGUN BEARINGS S.L kolaboratzailearen produktuen inguruko publizitaterik ez egiteko.

- Idiazabalgo Udalak eta LAU LAGUN BEARINGS S.L kolaboratzaileak «Ane Mintegi Del Olmo Beka» izeneko udal programaren barruan adostutako komunikazio estrategikoa errespetatzeko eta, hala eskatzen bazaio, horretan parte hartzeko.

-Bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko adierazpen guztietan; lehengo hizkuntza izango da euskara beti.

-Hizkeraren berdintasunezko erabilera bermatzeko; emakumea diskriminatzen duten irudiak ekiditeko eta berdintasunaren eta aniztasunaren irudia sustatzeko.

-Kirol arloko udal teknikariari egindako jardueren eta ekitaldien kontrol eta jarraipen lanak errazteko.

**Zazpigarrena.** Bekadunen legezko ordezkariak hitzarmen hau aldatzea eska dezakete, bekaren bidez lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen. Halatan, eska dezakete ezarritako epeak luzatzea, onartutako zenbatekoa murriztea, edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzea, eta eskatutakoa onartua izango da baldin eta aurreikusi ezin diren gorabeherak gertatu badira edo beharrezkoa bada jardueraren burutzapen egokirako, betiere diru laguntzaren xedea edo helburua ez bada aldatu eta ez bado hirugarren bati kalterik egiten.

Idiazabalgo Udalak hitzarmen hau alda dezake bekaren onuradunari jakinarazi ondoren eta funtsak erabili aurretik, hitzarmen hau onartzeko kontuan hartu ziren baldintzen aldaketek lortu nahi den interes publikoa eragotzi edo oztopatzen badute eta onuradunari ez bazaio kalte ekonomikorik egiten.

Bekadunaren legezko ordezkariak zuzitzeko agirian jakinarazten badute aldatu egin direla diru laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak, eta, aldaketa horiek direla eta, lehen adierazitakoaren arabera ebazpena aldatu egin zitekeela, baina aldaketa onartu aurreko baimen



## Idiazabalgo Udala

Espedientea:  
2020KHTZ0008

administratiboaren tramitea ez zela egin bere garaian Idiazabalgo Udalak aurkeztutako egiaztapena onartu ahal izango du nahiz eta horrek ez duen onuraduna salbuesten azaroaren 17ko Legearen 61.-63. artikuluen arabera dagozkion zigorretatik.

**Zortzigarrena.** Bekadunaren legezko ordezkariak ez badute betetzen hitzarmen honetan eta gainontzeko araudi aplikagarrian ezarritako baldintzetakoren bat, laguntza hau jasotzeko eskubidea galduko dute erabat edo neurri batean, eta jasotakoa itzuli beharko dute osorik edo neurri batean, legezkiekeen berandutza interesekin batera, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 40. atalak xedatutakoari jarraituz, eta erantzukizunak eskatuko zaizkie, aipatutako 38/2003 Legeak xedatutakoaren arabera. Bete gabe utzi dena mailakatzeko, proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira, indarrean dagoen diru laguntzei buruzko araudiarekin bat etorritz.

Lanaren bideragarritasunagatik edo izaeragatik, edo behar bezala justifikatutako beste arrazoiengatik ezingo balitz lana bukatu edo aurrera jarraitzea komeni izango ez balitz, diru laguntza bukatutzat eman eta eten daiteke, bi aldeen artean adostua.

**Bederatzigarrena.** Hitzarmen honek sinatzen den egunetik hasi eta 2021ko ekainaren 30era arte izango du eragina; eta edonola ere, hartutako konpromisoak erabat bete arte, hurrengo klausulan ezarritakoaren kaltetan gabe.

**Hamargarrena.** Hitzarmena aurreko klausulan ezarritako indarraia pasatu delako edo hitzarmena hautsi delako iraugiko da. Alderdietako batek bere gain harturiko konpromisoak betetzen ez baditu, besteak ahalmena izango du zehatz-mehatz bete ditzan eskatzeko, edota hitzarmena amaitutzat eman dadin eskatzeko. Halaber, diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolana ere, diru laguntza hauen gain beste erakunde publiko nahiz pribatuengandik besteren bat jasoz gero, lankidetzan hitzarmena aldatu edo iraungi daiteke. Desegin ez gero, alderdiek amaieraren baldintzak eta gauzatze bidean dauden jardueren ordainketak zehaztuko dituzte.

**Hamaikagarrena.** Idiazabalgo Udalak izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren erantzulea izango da 2016/679 Erregelamenduak (EB), 2016ko apirilaren 27koak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak; eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duenak (Datuak babesteko erregelamendu orokorra); 5/2018 Errege Lege-Dekretua, uztailaren 27koa, Espainiako zuzenbidea datu babesari buruzko Europar Batasuneko araudira egokitzeko premiazko neurriak buruzkoak; horien akatsen zuzenketak; horiek aurkaratzen ez dituzten bitartean, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 13/1999 Lege Organikoak eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatuko duen erregelamendua onartzen duenak xedatutakoari jarraituz\*.

Nolana ere den, LAU LAGUN BEARINGS S.L kolaboratzaileak ere izango du ardura, bere kontura egindako ekintzen kasuan.

**Hamabigarrena.** Hitzarmen hau izaera administratibokoa da. Hitzarmena interpretatu edo betetzerakoan arazorik sortuz gero, administrazioarekiko auzibideko jurisdikzioak erabakiko ditu.



## Idiazabalgo Udala

Espedientea:  
2020KHTZ0008

Hitzarmen honetan arautzen denaz gain, aplikatuko dira azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru laguntzen Legea garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.

Eta ados daudela frogatzeko, hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, goiburuan ageri diren lekuan eta egunean.

<p>IDIAZABALGO ALKATE UDALBURUAK</p>  <p>Iñaki Alberdi Iparragirre</p>	<p>Ane Mintegi Olmo BEKADUNAREN LEGEZKO ORDEZKARIAK</p>  <p>Jose Luis Mintegi Ariztimuño</p>
<p>Nire aurrean, IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK</p>  <p>Leire Ucin Soraluze</p>	<p>Ane Mintegi Del Olmo BEKADUNAREN LEGEZKO ORDEZKARIAK</p>  <p>Maria del Carmen Olmo del Zamarro</p>



## Idiazabalgo Udala

Espedientea:  
2020KHTZ0008

\*DATUEN BABESA

Tratamenduaren xedea	Diru-laguntzen prozedura eta ondorengo finantza-kontrolari buruzko espedienteak izapidetzea	Hirugarren herrialdeetara datu-transferentziak	Ez, legezko betebeharra izan ezik.
Tratamenduaren legitimazioa zein lege-oinarria	a) Interesdunaren adostasuna b) Interes publikoaren izenean edo botere publikoan jarduten: toki araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 b) artikulua eta Zerbitzuen erregelamendua onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 23.g) artikulua eta hurrengoak; dirulaguntzen arloko araudia	Eskubideak*	1. Datuak atzitzeko eskubidea 2. *Datuak zuzentzeko, ezerezteko eta aurka joateko eskubideak 3. *Tratamendua murriztea eskatzeko eskubidea 4. Datuak eramateko eskubidea 5. Kontrol agintarien aurrean erreklamazioak aurkezteko eskubidea :
Informazioa kontserbatzeko epea zein irizpideak	Emateko eta finantza kontrolaren espedienteen izapidetzan. Balioetsitako epea: 5 urte	Tratamenduaren arduraduna	Idiazabalgo Udala Plaza Nagusia 3, 20.213 Idiazabal udala@idiazabal.eus 943.187.100
Profilak egiteko edo erabaki automatizatuak hartzeko asmoa	Ez, estatistika-helburuetarako izan ezik	Datuak babesteko ordezkaria	Idiazabalgo Udala Plaza Nagusia 3, 20.213 Idiazabal udala@idiazabal.eus 943.187.100
Datuen lagapena	Ararteko, Herriaren Defentsarako erakundea, Kontuen Epaitegiak eta legez aurreikusitako beste edozein lagapen	*	* Mugatuta daude, kontrol ekonomikoko prozedurak oztopa ditzaketan neurrian